

**Espedientearen kodea:** 2022HI410001

**Espedientearen gaia:** LIN-8 Arkotz H.I.A.ren hirigintza antolamenduko plan berezia aurkeztea.

**Titularra:** Villa Cándida, S.L. Ord. Eñaut Muñoa

## **EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA**

**Xabier de la Mota Vazquez, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:**

**ZIURTATZEN DUT:** Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2024/09/25ean, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

**“LIN-8 H.I.A. ARKOTZ EREMUKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.**

Villa Candida S.L.k 2021eko apirilaren 7an egindako eskaeraren ondorioz, udal honek Oiartzungo LIN-8 -Arkotz- eremuko Hiri-Antolamenduko Plan Bereziaren tramitazioa burutu du, Astazaldi Arkitektura Estudioak eta Ekolur Asesoría Ambiental S.L.L.ek idatzitako dokumentuen oinarriarekin.

Dokumentazioa azterturik, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko ekainaren 8an, Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Erkidearen 139. artikuluan aurreikusitako aurretiazko kontsulta burutu ondoren, Ingurumen-ebaluazioa arautzen duen 21/2013 Legearen 18.3 eta 19 artikuluen arabera, Jaurlaritzako ingurumen organoari ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera egin zion.

Ingurumen organoak Irismen Dokumentua eman zuen 2021eko irailaren 7an, eta 2021eko urriaren 18an URA Ur Agentziaren txostena jaso zen, b.2 eraikuntzak errekarerako lerroak bete beharko zituela adierazten zuena.

Dokumentazio berria aurkezturik, 2022ko maiatzaren 10eko Tokiko Gobernu Batzarrak Oiartzungo LIN-8 -Arkotz- eremuko Hiri-Antolamenduko Plan Bereziari eta Ingurumen Azterketa Estrategikoari hasierako onarpenera eman zion, jendaurrean 45 egunetan jarri eta zegokion txosten sektorialak eskatzeko aginduz. Jarraian Hizkuntza Inpaktuaren Ebaluazioa burutzeko tramitea egin zen azterlana ez zela beharrezkoa ondorioztatu zelarik, 2022ko maiatzaren 16ko txostenean. Era berean, genero ikuspegia txertatzeko asmoarekin, 2022ko maiatzaren 16an txostena eman zen eremuko urbanizazio egitasmoan eta orube pribatuen garapenean genero eraginaren ondorioak kontuan eduki beharko direla adierazten zuena.

Emandako epean ez zen alegaziorik jaso eta honako alorretako txostenak jaso ziren: Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuarena eta Kultura Zuzendaritzarena, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzarena eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzarena, ADIF Administrador de Infraestructuras Ferroviariasena eta URA Ur Agentziarena.

Alorretako txostenen artean, URA Ur Agentziak 2022ko ekainaren 24ean aurkako txostena eman zuen honakoa osatzeko eskatuz: eremuaren ipar-mendebaldean oinezkoentzako bidearen trazadura aldatzea, bidegorriak ibilguarekiko izan behar duen gutxieneko 5 metroko tartea betetzeko, proposatutako garapenek sortutako ur-baliabideen eskaera berriak kuantifikatzea eta erakunde kudeatzailearen ziurtagiria, eremuan saneamendu eta hornidura azpiegiturek garapen berriak hartzeko nahikoak direla egiaztatzen duena. Bestalde, "Subdirección General de Planificación Ferroviaria del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana" k 2023ko otsailaren 20an bidalitako txostenaren arabera, behin betiko onarpenera eman aurretik txostenaren ondorioetako 4.4., 4.5. eta 4.6. ataletan adierazitako aldaketak jasotzen dituen behin betiko onarpenerako dokumentazioa aurkeztea agintzen zuen.

Udal arkitektoak egindako txostenaren arabera, sustatzaileak 2022ko azaroaren 22an aurkezturiko Plan Bereziaren alea eta Ingurumen-Azterketa Estrategikoak alorretako txostenak eskaturiko aldaketa eta

zuzenketak jasotzen zituenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko martxoaren 14ean egindako bilkuran, Oiertzungo LIN-8 -Arkotz- eremuko Hiri-Antolamenduko Plan Bereziaren hasierako onarpena berriro ematea erabaki zuen, Astazaldi arkitektoak 2022ko urrian sinatu Hiri-antolamendurako Plan Berezia eta Ekolur SLL.ek 2022ko azaroan sinatutako Ingurumen-Agiri Estrategikoa dokumentuen oinarriarekin. Espedientea 45 egunez jendaurrean jarri zen 2023/03/29 datako 61 zk.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta tirada handieneko egunkarietan egindako argitalpenen bidez eta entzunaldian eskuragarri jarri ziren Ingurumen-Azterketaren laburpen ez teknikoa, 21/2013 Legearen 21 artikulua araberan, eta Plan Bereziaren laburpen exekutiboa, 7/2015 E. Dekretu Legegilearen 25.3 artikulua eta 105/2008 Dekretuaren 32. artikulua jasotako edukiarekin.

Aipatu entzunaldian ez zen alegaziorik jaso, 2023ko ekainaren 7an udal idazkariak emandako ziurtagiriaren arabera.

Eskaturiko alorretako txostenen artean, honakoak jaso ziren: Ura Ur Agentziak 2023ko ekainaren 6an emandakoa, jabari publiko hidraulikoari dagokionez, egitasmoa ontzat ematen duena eta, hornidura eta hondakin-uren isurketei dagokionez, Oiertzungo udalak 2022ko urriaren 28an, horniduraren azpiegituren nahikotasuna eta lehen mailako saneamendu-sarearen egokitasunaz ziurtagiria eman zuenez, aldeko txostena ematen duena, azken arazketa Añarbeko Loiolako EDARrek egingo duela ezarritik. Horrez gain, 2023ko ekainaren 6ko Oiertzungo udal zerbitzuen txostena jasotzen da, dagokion baliabide hidrikoen eta azpiegituren erabilgarritasunari buruzkoa.

Udal hirigintzako teknikariak emandako txostenean jasotako prozedura jarraituz, kontuan izanik 46/2020 Dekretuaren 32.1 atalak Plan Berezien tramitazioan Plan Partzialentzako aurreikusitakoa aplikatuko dela ezartzen duela, arau horren 31.5.c) atalean jasotakoaren ondorioz, aurreko tramitean emandako alegazio eta txostenetan ezarritakoa aplikatu ondoren, udalak behin behingo onarpena eman zuen 2023/07/26an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean eta berau errepikatu zuen 2023/09/26 TGBean, 2023ko irailean sinatutako Ingurumen Azterketa Estrategikoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailera dokumentazioa bidaliz Ingurumen Adierazpen Estrategikoa eman dezan eskatuz.

Behin behingo onarpenean sustatzaileari gogorarazten zaio "Subdirección General de Planificación Ferroviaria del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana"k 2023ko otsailaren 20an bidalitako txostenaren arabera, behin betiko onarpena eman aurretik txostenaren ondorioetako 4.4., 4.5. eta 4.6. ataletan adierazitako aldaketak jasotzen dituen behin betiko onarpenerako dokumentazioa aurkeztu beharko duela eta udalak ministeriora bidali beharko duela oniritzia jaso dezan."

Jaurlaritzako Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailak, 2024ko urtarrilaren 1eko ebazpenaren bidez, Oiertzungo LIN-8ko H.I.A. - Arkotz - eremuko Hiri Antolaketako Plan Bereziaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa eman du, honako ondorioekin: "Ebazpen hau bat dator Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ondorioekin, eta uste du behar bezala justifikatu dela Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2021eko irailaren leko Ebazpenaren bidez emandako irismen-agirian aurkeztu ziren ingurumen-irizpideen integrazioa. Planak ingurumen-azterketatik eratorritako ingurumen-alderdiak integratu ditu, eta ingurumen-organoak emandako irismen-agirian eskatzen diren zabaltasuna, xehetasun-maila eta zehaztapen-maila ziurtatu ditu. Ingurumen-tramitazioan adierazitako alderdi guztiak behar bezala landu dira, plangintza-prozesuan ingurumenean izan ditzaketen ondorioak kontuan hartu direla ziurtatzeko".

Horrenbestez, Plan Bereziaren behin betiko onarpeneko fasean, udal arkitektoak egindako txostenaren arabera, aurrekarietako dagokionez, Oiertzungo Hiri Antolaketarako Plan Orokorrean (HAPO) LIN 8 eremurako aurreikusten den xehetasuneko antolaketa bideraezina egin zuen Astigarraga-Lezo trenbide berriaren azterketak. Baldintzatzaile horretara moldatzeko idazten da Plan Berezia, 19.548 m<sup>2</sup>ko azalera duen eremuan jarduera ekonomikoetarako 11.000 m<sup>2</sup>ko gehieneko orubean aurreikusten den 7.000 m<sup>2</sup>ko eraikigarritasuna antolatzeko.

Plan Bereziaren xedea, beraz, aipatu Astigarraga-Lezo trenbide berriaren proiektura egokitzea da eta, era berean, autonomia-erkidegoko ibai eta erreken antolaketako Alorreko Lurralde Planera egokitzea ere. Bestalde, honako helburu zehatzak izan ditu: Plan Orokorrak proposatutako jarduera ekonomikoen programari erantzutea, proiektatutako garapenaren ingurumen-inpaktuak gutxitzea, eremua zeharkatzen duen ibai-ibilguaren leheneratze naturala bermatzea, hirigintza-garapenaren barneko ibilgailuen bideak gaur egun inguruan dagoen bide-sarearekin integratzea, Donostia-Irun ardatzeko oinezkoen eta txirrindularien ibilbideari jarraipena ematea eta hirigintza-garapenaren jasangarritasuna bermatzea.

Dokumentuak jasotako antolaketari dagokionez, berriz, bi lursail antolatzen dira, b.1., 6.949 m<sup>2</sup>ko azalerakoa, 2.166 m<sup>2</sup> gehieneko okupazioa eta 5.950 m<sup>2</sup>ko eraikigarritasuna; eta b.2., 827 m<sup>2</sup>ko azalerakoa, 423 m<sup>2</sup>ko gehieneko okupazioa eta 1.050 m<sup>2</sup>ko eraikigarritasuna. Erabilerari dagokionez, hirugarren sektoreko erabilerak antolatzen ditu.

Aipatu txostenak ondoriotzatzen duen bezala, tramitazioan zehar alorretako txostenek eskaturiko aldaketa eta zuzenketak burutu dira, “Subdirección General de Planificación Ferroviaria del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana”k 2023ko otsailaren 20ko txostenean jasotakoa barne, aipatu organoak 2024/07/30ean emandako azken txostenean jaso bezala, eta Plan Bereziaren behin betiko onarpena ematea egokia da.

Guzti hau kontutan hartuta, aipatutako txostenen baitan Lurralde Batzordeak 2024ko irailaren 18an emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udaltzarak honako akordioa hartu du:

## AKORDIOA

**Lehen.**- VILLA CANDIDA SL enpresa ordezkatzeko duen EÑAUT MUÑO A ARTOLA jaunak 2024ko martxoaren 11an aurkeztutako “LIN-8 H.I.A. Arkotz eremuko Hiri Antolaketara Plan Bereziari behin betiko onarpena ematea.

**Bigarrena.**- Behin betiko onarpena jasoko duen dokumentazioa honako hau da:

1. ASTAZALDI ARKITEKTURA ESTUDIOAK 2024ko martxoan idatzitako “LIN-8 H.I.A. Arkotz eremuko Hiri Antolaketara Plan Berezia. Behin Betiko onarpenerako dokumentua. Memoria eta plano.
2. EKOLUR bulegoak 2024ko martxoan idatzitako “LIN-8 H.I.A. Arkotz eremuko Hiri Antolaketara Plan Berezia. Planean ingurumen-alderdiak, Ingurumen Azterketa Estrategikoa eta egindako kontsulten eta jendaurreko informazioa txertatu izanaren laburpen-dokumentua.
3. Ingurumen Adierazpen Estrategikoa. Jaurlaritzako Ekonomia garapen, jasangarritasun eta ingurumen sailak 2024ko urtarrilaren 10eko ebazpena eman zuen Oiertzungo LIN-8ko H.I.A. – Arkotz – eremuko Hiri Antolaketako Plan Bereziaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa emanez.

**Hirugarrena.**- Ondoren, honako biderapenak eta igorpenak egitea:

Foru Aldundira ebazpena eta Plan Bereziaren eta Ingurumen-dokumentu estrategikoaren alea bidaltzea, plangintza-erregistroan gorde ditzaten.

GAOn ebazpenaren argitalpena egitea, hurrengo edukiarekin:

- Behin betiko onarpenaren ebazpena eta ikusgai jarriko den helbide elektronikoa;
- Ingurumen-Txosten Estrategikoaren argitalpena egin duen EHAOaren aipamena.
- Aldundiko planeamendu erregistroa bidali izanaren aipamena. Ebazpen hau hedapen handienetako aldizkari batean ere argitaratuko da.



**Laugarrena.-** “Subdirección General de Planificación Ferroviaria del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana” delakoak 2024ko uztailearen 30ko txostenean egindako gomendioa sustatzaileari helarazten zaio, merkantzia-linea berriaren eta haren babes-eremuen trenbide-sistema orokorrari buruzko irizpenak jasotzearena hain zuzen ere.

**Bostgarrena.-** Tasa kontzeptuan 7.101,53 €-tako likidazioa onartzea.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araberako, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Idazkariak  
Xabier de la Mota Vazquez

O.E.  
Alkateak  
Joana Mendiboure



EKS | CSV: **ESKU01aa3e70-e7d5-4bbc-ae01-669280d623f3**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022HI410001-Ebazpena pleno/Ebazpena pleno (MUÑOA ARTOLA EÑAUT)